

TXIPIROIAK PLANTXAN

written by Errezetak



Askotan afari gisa arraina dugu eta, era azkar eta gozo bat txipiroiak plantxan egitea dugu.

Osagaiak:

2 Perts.

- 400gr Txipiroia
- 2 Baratxuri alea
- Perrexila
- 1/4 Edalontzi ardo zuria
- 4 Koilarakada olioia
- Ezkata-gatza

Prestaketa:

Txipiroiak garbitu. Zartagina sutan jarri eta 2 koilarakada **olioa** gehitu, bero dagoenean txipiroiak gorritu bi aldeetatik (2 minutu alde bakoitzeko).



Bitartean **baratxuri** aleak zuritu eta motrailu batean geratzen den olio, **ardo zuria** eta **perrexila** txikiturik gehitu, multzoa birrindu.



Behin txipiroiak eginak daudela zartaginetik atera eta bertan motrailuaren multzoa gehitu, baratxuria gorritu arte sukaldatu.



Bukatzeko, txipiroiak zartaginari berriro gehitu, bira batzuk eman zerbitzatzeko platerera atera. Azkenik **gatza** gaineratuz zerbitzatu.

